



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK ARAUTEGIAN ALDAKETAK AZTERTZEKO ESKATU DEUTSIE GARRAIO PUBLIKOARI, MASKOTAKAZ BIDAIATU AHAL IZATEKO

- **Bizkaiko Batzarretako talde guztiek aho batez gaur lortu daben akordioak atek edegiten deutzaz metroan eta autobusean 8 kilotik gorako txakurrakaz bidaiatzeko aukereari.**

(Bilbon, 2020ko bagilaren 12an). Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe gaur Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu taldeek adostutako zuzenketa-eske transakzionala, Bizkaiko garraio publikoko hainbat operadoreri, “ahalik eta lasterren, maskoten garraioagaz erlazionautako erregulazinoa aztertu daien” eskatzeko, “jagokozan kasuetan, beharrezkoak diran aldaketak eginez”. Aldaketa horreek, “enpresetako beharginen ordezkarien eta zuzendaritzaren arteko akordioa beharko dabe, garrantzitsuak diralako eta horreek apliketeak gaiztasunak ekarri daikezalako”.

Eztabaidea Batzarretako Elkarrekin Bizkaia taldeak bultzatuta ailegau da Bizkaiko Batzarretara, arauz besteko proposamen baten bitartez, eta EH Bilduk zuzenketa-eske bat aurkeztu dau. Azkenean, talde biek testua adostea lortu dabe, eta testu horrek ganerako taldeen (Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Berezia-PP) on eretxia jaso dau. Beraz, Batzarretako talde guztiek Garraio eta Mugikortasun Jasangarrirako batzordean lortu daben akordioak atek edegiten deutzaz aurrerantzean metroaren 1. eta 2. lineatan eta Bizkaibuseko autobusetan 8 kilotik gorako maskotakaz bidaiatzeko aukereari. Une honetan indarrean dagon arautegiak ez dau horretarako aukerarik emoten.

Elkarrekin Bizkaia taldeko Emilio Lobatok, Bizkaibusen eta Metro Bilbaon gehienez be 8 kg arteko maskotakaz bidaiatzea ezarten dauen araua baztertze eskatu dau, “zaharkituta dagolako eta arbitrarioa dalako”, baina, hori bai, “muga” batzuk ezarri beharko dirala esan dau, garraioan hartu behar daben lekuari edo ordutegiei jagokenez, adibidez. Operadoreei arautegia “eguneratzeko” eskatu deutse, beste uri batzuetan, Madrilen edo Bartzelonan, adibidez, egin daben moduan. Uri horreetan “ez da maskotaren pisua kontuan hartzen”.

EH Bilduko Raúl Méndezek, bere aldetik, beharginen eta enpresen arteko “akordioa” eta erabiltzaileen arteko “bizikidetzeta” azpimarratu ditu. Maskotak “eroso eta ahalik eta modu egokienean” bidaiatzeko soluzinoak bilatzea eskatu dau, baina kontuan izanda “ez dala gauza bera” garraio publikoa jente gehien



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dagon orduetan edo San Mamesen partidua dagonean, edo erabiltzaile gitxiago dagon orduetan erabiltea. Halanda be, koalizino abertzaleko ordezkariaren eretziz, “guztiz beharrezkoa” da arautegia doitzea eta Bizkaiko garraio publiko osoan “homogeneizatzea”. Koalizino abertzaleak planteau dauenez, “zalantza batzuk” argitu beharko dira, maskoten jaubeek beste txartel bat ordaindu beharko ete daben, Europako hainbat herrialdetan egiten dan moduan, edo “higienearen kontrola, musturrekoa derrigorrez eroan beharra edo ordu mugea”, beste batzuen artean.

Talde Berezia be “erespideak bateratzearen” alde agertu da. Metro Bilbaon edo Bizkaibusen 8 kilotik gorako maskotakaz bidaiatzea debekauta dago, baina tranbian, Renfen, Feven, Artxandako Funikularrean, Zubi Eskegian edo Euskotrenen 3. linean, barriz, ez dago holango mugarik. Eduardo Andrade popularra “mugak jartzearen” alde agertu da, erabiltzaile batzuk “bildur handia sentiduten dabelako” txakurren aurrean, arraza arriskutsuetakoak badira, batez be.

Ekain Rico Euskal Sozialistak taldeko ordezkaria be “homogeneizazioaren” alde agertu da, baina “garraio mota bakotxaren ezaugarriak” kontuan izanda, eta “babeserako” maskotak behar dituen personak nabarmendu ditu, “tratu txarrak jasan dituen emakumeak edo arazo funtzionalak dituen personak”, adibidez. Akordioak beharginen on eretxia eukitea eskatu dau.

Modu berean, Unai Lerma jeltzalearen eretziz, txakur guztiei garraio publikoa erabilteko aukera emotea “helburu txalogarria” da, baina, bere eretziz, garraio operadore bakotxaren barruan landu behar da, “horreek diralako erespideak ondoen zehaztu daikiezanak”, bakotxak “bere ezaugarriak” ditualako.

GARRAIOA GALDAKAORA ETA NEURRIAK COVID-19AREN GARAIAN

Beste alde batetik, batzordeak ez dau onartu Elkarrekin Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat. Proposamen horretan, trenbidea Galdakaora luzatzeko proiektua “fase bakarrean” eregitea eskatzen jaken Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, beste gauza batzuen artean, “linearen behin betiko diseinuan Sarratuko geltoki Intermodalaren proiektua kontserbazu”. Ekimenak EH Bilduren aldeko eretxia jaso dau. Talde horrek, zuzenketa-eske baten bitartez, eraikuntza proiektua Metroaren gaur egungo 3. linearen luzapen moduan egitea eta Usansolotik igarotean Euskotrenegaz lotura zuzena eukitea eskatzen eban. EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeak proposamenaren kontra agertu dira, eta Eusko Jaurlaritza egiten ari dan behin betiko trazauaren azterlana bukatu arte itxaroteko eskatu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Eraitza beragaz (kontrako 10 boto eta aldeko 5) ez da onartu EH Bilduren arauz besteko beste proposamen bat. Bertan, Covid-19aren arintze garaian zerbitzu “eraginkorragoa” emoteko bederlatzi neurri planteetan ziran. Ekimen horretan, garraio publikorako sarbideetan persona kopurua kontrolatuko edo distantzia gordetako neurri espezifikoak jasoten ziran, eta baita beste neurri orokorragoak be, bizikletaren erabilerea sustatzea, enpresen ordutegiak malgutzea, bidaiari gehieneko ohiko orduak saihesteko, astean lau eguneko jardunaldia bultzatzea eta telelanaren aldeko apustuagaz jarraitzea, adibidez.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek zuzenketa-eske bat planteatu dabe. Bertan, eskaria egiten jakon Aldundiari, “gizartearen ikuspegitik eraginkorra izango dan garraio publiko segurua bermatzeko beharrezkoak diran neurriak egokitzen jarraitzeko”, “osasun arloko agintariek ezarten dituen” neurriak kontuan izanda. Neurri horreek “aldatuz doaz”, pandemiaren bilakaeraren arabera.

BIZKAIBUSEKO MARKESINAK ETA QR KODEAK

Amaitzeko, Talde Bereziak (PP) egin dituan galderei erantzunez, Miguel Ángel Gómez Viar Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuak aurreratu dauenez Aldundiak “hainbat urteko kontratuetan, datozan ekitaldietako aurrekontuen barruan, lizitauko dau Bizkaibuseko markesina barrien instalazinoa”. Bizkaiak 2.434 geraleku eta hainbat modelotako 798 markesina ditu instalata. Une honetan, instalazino horreek Informazinarako 112 Terminal ditue. Bera buru dan saila beharrean ari da, erabiltzaile gitxiagoko puntuetan dagozan geralekuetan informazinarako beste mota bateko gailua zabaltzeko. Mobikorragez irakurteko QR kodeak edo NFC teknologia dira, autobusak noiz igaroko diran jakiteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INSTAN AL TRANSPORTE PÚBLICO A ESTUDIAR CAMBIOS EN LA NORMATIVA PARA VIAJAR CON MASCOTAS

- **Un acuerdo unánime alcanzado hoy por todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína, abre la puerta a que se permita viajar en metro y autobús con perros de más de 8 kilos.**

(Bilbao, a 12 de junio de 2020). Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado hoy, por unanimidad, una enmienda transaccional consensuada por Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu en la que se insta a los diferentes operadores de transporte público de Bizkaia a “analizar, a la mayor brevedad posible, la regulación en relación al transporte de mascotas, adoptando, en su caso, las modificaciones que sean oportunas”. Dichos cambios deben contar “con el acuerdo entre representantes de las plantillas y dirección de las empresas afectadas, dado el calado de las mismas y las dificultades que pueda conllevar su aplicación”.

El debate ha llegado a la Cámara vizcaína impulsado por el grupo Juntero Elkarrekin Bizkaia por medio de una proposición no de norma, enmendada por EH Bildu. Ambos grupos han llegado finalmente a un texto consensuado que ha tenido el beneplácito del resto de grupos (Nacionalistas vascos, Socialistas Vasco y Mixto-PP). El acuerdo alcanzado por tanto por todos los grupos junteros hoy en la comisión de Transportes y Movilidad Sostenible, abre la puerta a que mascotas de más de 8 kilos de peso puedan viajar en el futuro en las líneas 1 y 2 del suburbano y en los autobuses de Bizkaibus, algo que no es posible ahora.

Emilio Lobato, de Elkarrekin Bizkaia, ha apostado por eliminar por “obsoleta y arbitraria” la norma que limita el viajar con mascotas de hasta 8 Kg en Bizkaibus y Metro Bilbao, eso sí con una serie de “limitaciones” en cuanto a la ubicación y los horarios. Ha pedido que los operadores “actualicen” la normativa como se ha hecho en otras ciudades como Madrid o Barcelona donde “no se tiene en cuenta el peso de la mascota”.

Por su parte, Raúl Méndez, de EH Bildu, ha hecho hincapié en el “acuerdo” entre trabajadores y empresas, y la “convivencia” entre usuarios. Ha pedido que se busquen soluciones para que las mascotas viajen “cómodamente y de la mejor manera posible”, pero teniendo en cuenta que “no es lo mismo” utilizar el transporte público en hora punta o en partidos en San Mames, o en hora valle cuando la presencia de usuarios es menor. Sin embargo, para el representante de la colación abertzale es “imprescindible” ajustar la normativa y



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“homogeneizarla” en todo el transporte público de Bizkaia. La coalición abertzale ha planteado que tendrán que resolverse “ algunas dudas”, como si los dueños de las mascotas deben pagar otro billete como se hace en países europeos, o sobre “el control de higiene, la obligación de llevar bozal o la limitación horaria”.

El grupo Mixto se ha mostrado de acuerdo con la idea de “unificar criterios”. Mientras que en Metro Bilbao o Bizkaibus no se permite viajar con mascotas de más de 8 kilos, en otros medios como el tranvía, Renfe, Feve, el Funicular de Artxanda, el Puente Colgante o la línea 3 de Euskotren, no existe tal prohibición. El popular Eduardo Andrade ha apostado, sin embargo, por “poner limitaciones”, ya que hay usuarios “que tienen pánico” a los perros, especialmente si son de razas peligrosas.

El representante del Grupo Socialistas Vascos Ekain Rico, se ha decantado también por la “homogeneización”, pero teniendo en cuenta las “características de cada medio de transporte”, y ha puesto el foco en las personas que necesitan mascotas “de protección” como “mujeres maltratadas o personas que tienen problemas funcionales”. Ha pedido que el acuerdo cuente con el visto bueno de los trabajadores.

En esta misma línea, el jeltzale Unai Lerma cree que la idea de permitir subir al transporte público a todos los perros es un “objetivo loable” pero, a su juicio, debe ser trabajado en el marco de cada operador de transporte, “que son los que pueden llegar a concretar mucho mejor los criterios”, ya que cada uno tiene “sus propios condicionantes”.

TRANSPORTE A GALDAKAO Y MEDIDAS EN TIEMPOS DE COVID-19

Por otro lado, la comisión ha rechazado una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia en la que se pedía que el Gobierno vasco y la Diputación foral de Bizkaia construyesen “en una sola fase” la ampliación del ferrocarril a Galdakao, entre otras cosas, “manteniendo el proyecto de la estación Intermodal de Sarratu en el diseño definitivo”. La iniciativa ha contado con el apoyo de EH Bildu que pedía a través de una enmienda que el proyecto de construcción se ejecutase como una prolongación de la actual Línea 3 de metro y que tuviera una conexión directa con Euskotren a su paso por Usansolo. La propuesta ha sido desestimada por PNV, PSE-EE y PP, que han pedido que concluya primero el estudio de trazado definitivo que está realizando el Gobierno vasco.

Tampoco ha salido adelante, con el mismo rechazo (10 votos en contra y 5 a favor), una proposición no de norma de EH Bildu en la que se planteaban hasta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

nueve medidas para prestar un servicio “más eficiente” en la etapa de desescalada del Covid-19. La iniciativa incluía medidas específicas para controlar el número de personas en los accesos al transporte público o respetar la distancia, y otras medidas más generales como potenciar el uso de la bicicleta, flexibilizar el horario de empresas para evitar las habituales horas punta, promover una semana de trabajo de cuatro días y seguir apostando por el teletrabajo.

Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han planteado una enmienda en la que se instaba a la Diputación a “continuar adaptando las medidas necesarias para garantizar un transporte público seguro y socialmente eficiente” en función de las medidas que “vayan estableciendo las autoridades sanitarias” y que son “cambiantes” conforme a la evolución de la propia pandemia.

MARQUESINAS DE BIZKAIBUS Y CÓDIGOS QR

Por último, en respuesta a preguntas del Grupo Mixto (PP), el diputado foral de Transportes y Movilidad Sostenible, Miguel Ángel Gómez Viar, ha avanzado que la Diputación licitará “la incorporación de nuevas marquesinas de Bizkaibus en forma de contratos plurianuales en los sucesivos ejercicios presupuestarios venideros”. Bizkaia cuenta con un total de 2.434 paradas y 798 marquesinas de diferentes modelos instaladas. En estos momentos, estas instalaciones cuentan a su vez con 112 Terminales de Información. Gómez Viar ha informado que su departamento está trabajando en extender otro modelo diferente de dispositivo informativo para las paradas en aquellos puntos con menos flujo de usuarios. Se ha referido a códigos QR o tecnología NFC de lectura con el móvil para comprobar el tiempo de paso de los autobuses.